



BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ, Tolosako Udaleko Idazkaria.

NEUK ZIURTATUA:

Gobernu batzarrak, bi mila eta hogeita biko maiatzaren hamazazpian, bestek beste, ondoren aipatzen den erabakia hartu du :

2. BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA “6. SANTA KLARA” HIRIGINTZA ESPARRUKO “6.1 SAN KOSME ETA SAN DAMIAN” AZPIESPARRUKO URBANIZAZIO-PROIEKTUARI.

Esparrua:	6. Santa Klara
Azpiesparrua:	6.1 San Kosme eta San Damian
Eskatzailea:	Bista-Alai, SA, Juan Carlos Soraluze Echaniz administratzaile solidarioak ordezkaturata
Sarrera datak (erregistro elektronikoa):	2018/05/09 (2018-3849 sarrera zk.)
Espedientea:	2018H1220001

AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Urbanizazio-proiektuaren aurkezpena Tolosako Udalaren sarrera erregistroan	2018/05/09	
Txosten juridikoa (GL 18044)	2018/05/16	Aldekoa
Txosten teknikoa (TR18091)	2018/08/28	Dokumentu berri baten eskaera
Dok. osagarria aurkezteko errekerimendua	2018/09/03	
Urbanizazio-proiektu zuzenduaren aurkezpena Tolosako Udalaren sarrera erregistroan	2018/09/20	
Txosten teknikoa (JM19006)	2019/01/30	Kontrakoa, proiektu berri bat aurkezteko epea emanez
Dok. osagarria aurkezteko errekerimendua	2019/02/12	
Eginbidea: prozedura etetea (COVID19)	2019/03/14	
Eginbidea: prozedurari jarraipena (COVID19)	2019/06/01	
Kantauriko konfederazio hidrografikoaren ebazpena	2020/06/01	
	2021/03/15	
Urbanizazio-proiektu zuzenduaren aurkezpena Tolosako Udalaren sarrera erregistroan	2021/06/11	Kontrakoa, proiektu berri bat



Txosten teknikoa (JO21019)	2021/06/16	aurkezteko epea emanaz Kontrakoa, proiektu berri bat aurkezteko epea emanaz
Txosten teknikoa (JM21048)	2021/06/23	Kontrakoa, proiektu berri bat aurkezteko epea emanaz
Idazkariaren ziurtagiria Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaz	2021/07/27	
Jakinarazpena eskatzaileari	2021/09/13	
Urbanizazio-proiektu zuzenduaren aurkezpena Tolosako Udalaren sarrera erregistroan	2021/09/15	Aldekoa, behin betiko onespenerako baldintzekin
	2021/09/16	Aldekoa, behin betiko onespenerako baldintzekin
Txosten teknikoa (JO21037)	2021/09/21	Aldekoa, behin betiko onespenerako baldintzekin
Txosten teknikoa (JM21060)		
Idazkariaren ziurtagiria Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaz	2021/09/28	
Jakinarazpena eskatzaileari	2021/10/06	
	2021/10/06 -	
	2021/11/08	
- Iragarkia GAOn	2021/10/11	
- Iragarkia udaletxeko iragarki taulan / web gunean	2021/10/11	
	2021/10/12	
- Diario Vasco-n		
- Tolosaldeko Ataria-n	2021/11/29	Jendaurrekoan alegaziorik ez
- Berria egunkarian		
Idazkariaren ziurtagiria informazio publikoari buruz	2021/12/07	Aldekoa, behin betiko onespenerako
	2021/12/22	
Txosten teknikoa (JO21051)		
Urbanizazio-proiektu zuzenduaren aurkezpena Tolosako Udalaren sarrera erregistroan	2022/01/10	
	2022/01/28	Aldekoa, baldintzekin
Txosten sektorialen eskaera (GFAko Bide Azpiegituretako Departamentua)	2022/02/08	
Bide Azpiegituretako Departamentuaren txostena I	2022/02/10	
Urbanizazio-proiektu zuzenduaren aurkezpena Tolosako Udalaren sarrera erregistroan	2022/03/04	Aldekoa
Dok. osagarria GFAko Bide Azpiegituretako Departamentuari bidaltzeko ofizioa	2022/03/24	
Bide Azpiegituretako Departamentuaren txostena II	2022/05/10	Aldekoa



GUREAKeko Lorezaintzako teknikariaren
txostena

Txosten tekniko (AE22011)

2022ko maiatzaren 10eko hirigintzako udal ingeniari teknikoaren txostenak (AE22011),
laburbilduz, honako hau dio:

“(...)

2-AZTERKETA TEKNIKO

“6.1 San Kosme eta San Damian” azpi-eremua Ibarako mugan dagoen hiri eremua da, Ibaralde kaleko iparraldeko espaloian dagoena. Orubea San Cosme eta San Damian klinikak eta eraitsitako industria-eraikin batek okupatzen zuten. Partzelak forma irregularra du, GI-2130 errepidearen ertzean dago, N-I errepidean Ibarako zubibidea izenez ezagutzen denaren oinean.

Egindako Foru Aldundiaren lehen txostenean esaten zen:

“Pilarea mendigune harritsuan zimendatuta badago ere, hondeatutako ezpondaren eta zapataren arteko tartea txikia da. Zuhurtasun hutsagatik, urundu egin beharko da.”

“...Ondorioz, departamentu honek aldeko txostena emateko ezinbestekoa izango da 3. tarteko eustormaren diseinua aldatzea, autobiarekiko paraleloan...”

Aurkeztutako agiri zuzenduak aztertu ondoren, Aldundiaren ordezkariak zera jaso dute euren txostenean:

“Beraz, egin den aldaketarekin Departamentuaren eskumeneko gaiei dagokienez, ez dugu eragozpenik ikusten proiektuari onespina emateko.”

Bide Azpiegituretako Departamentuak emandako onespina oinarritua dago LURTEK enpresako ordezkariak eginiko azterketa geoteknikoan eta HIRIGINTZA enpresako Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariak definitutako euste neurrietan.

Horiek -euste neurriak- azterketa geoteknikoak aurreikusitako ezpondaren ezaugarrietara egokitu dira. Horrela, azterketa geoteknikoan ondorengo jaso zen:

“Hay que señalar que aunque este estudio proporciona una buena base para la realización del Proyecto, se considera **completamente necesaria** la contratación de una asistencia geotécnica, con objeto de que se realice una supervisión de las obras, a cargo de personal especialista en geotecnia.”

Ezponda hondeatzea eta eustea gauzatzean aurreikusitako egitura geologikoa bat ez etorri gero, eusteko hormen eraginkortasuna desagokia izan daiteke. Horrek, N-I-eko zubiari eragin diezaioke. Hori saihesteko azterketa geoteknikoak egindako gomendioa aintzakotzat hartu behar da, nire iritziz.

3-ONDORIOA



Foru Aldundiko ordezkarien txostenean onarpena ematen zaio aurkeztutako zuzenketari. Ondorioztatu dute proiektuan jasotako neurriak nahikoak direla N-I-eko zubiari kalterik ez egiteko.

Kontuan hartuta, errepideak duen garrantzia eta azterketa geoteknikoaren egileak eginiko oharra, ezinbestekoa iruditzen zait:

LEHENA.- Ezpondaren egonkortasuna bermatzeko gaitasun teknikoa duen pertsona batek hondeatzearen gainbegiratzea, ondoren, horren arabera euste neurriak definitu daitezten. Beraz, Obra zuzendaritzarekin batera laguntza geoteknikoa kontratatzea beharrezkoa ikusten dut”.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Aplikatu beharreko legeria honako hauek ezartzen dute:

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147, 194 eta 196. artikulua.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikulua.

II. Urbanizazio-proiektua behin betiko onartzeko jarraitu beharreko prozedura honako hau da:

Jendaurreko informazioa amaitutakoan eta alegazioak ikusita, alkateak (Tolosako Udalaren kasuan, Tokiko Gobernu Batzarrak) behin betiko onartuko du urbanizazio-proiektua, hasierako onespeneren ondorengo jendaurreko informazioaren izapidea amaitzen denetik bi hilabeteko epean. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, ulertuko da behin betiko onarpena administrazio-isiltasunez eman dela.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da.

III. Alkatetzari dagokio urbanizazio-proiektuaren behin betiko onespenera ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalarik dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetzaren Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokio behin betiko onespenera ematea.

AZTERKETA JURIDIKOA

«6.1 San Kosme eta San Damian» azpiesparruko urbanizazio-proiektua onartzeko espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzea izan du, beraz, behin betiko onespenera eman dakieke 2021eko abenduaren 22 aurkeztutako testu bateratuari eta 2022ko otsailaren 8an aurkeztutako dokumentu osagarriari; eta onspen hori ematea Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da udal teknikariak zein GUREAKeko Lorezaintzako teknikariak egindako txostenetan jasotakoa. Azken honetatik, besteak beste, azpimarratu behar da «6.1 San Kosme eta San Damian» azpiesparruko berdegunea eguzkitsua den heinean xerolorezaintzan oinarritutako lorategia egin behar da



dela; hau da, mantentze-lan eta ekarpen hidriko txikia behar duten landareak erabili beharko dira. Halaber, kontuan hartu beharko dira eraikinek hartzen duten altuera eta lorategigunean sor dezaketen itzala. Bestalde, aintzat hartuta lursailaren malda, beharrezkoa izango da urbanizazio lanak egiterakoan, ondoren udalak egin beharreko mantentze-lanak segurtasunez egiteko beharrezko aingurak jartzea.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariek egindako txosten teknikoak zein juridikoa eta aplikatu beharreko lege-xedapenak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA «6. Santa Klara» hirigintza esparruko «6.1 San Kosme eta San Damian» azpiesparruko urbanizazio-proiektuaren testu bateratuari (2021eko abenduaren 22an aurkeztutakoa) eta hura osatzen duen dokumentu osagarriari (2022ko otsailaren 8an aurkeztutakoak).

BIGARRENA.- Ohartaraztea, ezpondaren egonkortasuna bermatzeko, obran zehar, nahitaez, gaitasun teknikoa duen pertsona batek hondeatzea gainbegiratu beharko duela, ondoren, horren arabera euste neurriak definitu daitezzen. Beraz, obra zuzendaritzarekin batera, laguntza geoteknikoa kontratatu beharko da.

HIRUGARRENA.- Adieraztea «6.1 San Kosme eta San Damian» azpiesparruko berdegunea eguzkitsua den heinean, xerolorezaintzan oinarritutako lorategia egin beharko dela; hau da, mantentze-lan eta ekarpen hidriko txikia behar duten landareak erabiltzea. Halaber, kontuan izan behar dira eraikinek hartzen duten altuera eta lorategigunean sor dezaketen itzala.

Bestalde, aintzat hartuta lursailaren malda, beharrezkoa izango da urbanizazio lanak egiterakoan, ondoren udalak egin beharreko mantentze lanak segurtasunez egiteko beharrezko aingurak jartzea.

LAUGARRENA.- Behin betiko onepen erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Halaber, Udalaren iragarki taulan zein egoitza elektronikoan ere ikusgai jartzea.

BOSGARRENA.- Erabaki hau interesdunei zein eraginpeko lursailen jabeei zuzenean jakinaraztea.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntzako zinegotzi delegatuaren onespenerekin, Tolosa, sinadura agertzen den datan.



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0011

**O.e.
ANTOLAKUNTZAKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

IDAZKARIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUbbfd008-9091-471f-8fe0-01de8b479da7**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGBA0011-San Kosme eta San Damian azpiesp/San Kosme eta San Damian